Ebazpena: R036/2025
Espedientea: E075/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 27a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek; bada, hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurrean planteatu duen gatazkari buruzkoa, zeinaren xedea baita zehaztea zein den GFAk duen eskumena INGENIERÍA DE SANITIZACIÓN Y CONSERVACIÓN SA (aurrerantzean, INGENIERÍA DE SANITIZACIÓN; IFK: XXXXXXXXX1) zergapekoaren eragiketa-bolumena egiaztatzeko jarduketak egiteko, 2018-2021 urteetako BEZari eta 2017-2020 ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergari (aurrerantzean, SZ) dagokienez. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 75/2022 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.– INGENIERÍA DE SANITIZACIÓN enpresak Madrilen du egoitza fiskala, eta, nahiz eta eztabaidagai izan diren ekitaldi guztietan 10.000.000 euro baino gehiagoko eragiketa-bolumena izan duen, Estatuari bakarrik deklaratu dio.

2.– 2022ko maiatzaren 18an, GFAk 2018-2021 urteetako BEZ eta 2017-2020 ekitaldietako SZ egiaztatzeko jarduketei ekin zien (2/2005 Foru Arauaren bidez onartutako Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren 144.3 artikuluaren arabera, jarduketa hori egiaztapen- eta ikerketa-prozedura, hau da, ikuskapen-prozedura, hasteko erabakiaren aurrekoa da), eta jarduketak Ekonomia Itunean ezarritako mugekin egingo direla ohartarazi zuen.

Egiaztapen hori dela eta, informazio hau eskatu zion zergapekoari:

a) Egiaztatutako ekitaldietako eragiketa-bolumena, Gipuzkoa, Kanariak, Ceuta eta Melillari dagokien zenbatekoa zehaztuta.
b) Aipatutako ekitaldietako SZ eta BEZ aitorpenen kopia.
c) ZAEAn aurkeztutako BEZaren hileko autolikidazioen emaitza.

3.– 2022ko maiatzaren 30ean, INGENIERÍA DE SANITIZACIÓN enpresak informazioa eta eskatutako dokumentazioa aurkeztuz erantzun zuen.

4.– 2022ko maiatzaren 31n, GFAk eskumenik ez duen administrazioan sartzeko txostena egin zuen, zergapekoak ZAEAri eska ziezaion sozietatearen eragiketa-bolumenaren proportzioa egiaztatzeko.

5.– 2022ko ekainaren 8an, GFAk txostena bidali zion ZAEAri, zegokion eskaerarekin batera, eta eskatu zion egiaztatzeko aipatutako zergaldietako zergen eragiketa-bolumenaren proportzioa.

6.– 2022ko ekainaren 21ean, ZAEAk, eskaera izapidetu aurretik, txostena egiteko erabili zuen informazioa eskatu zion GFAri.

7.– 2022ko ekainaren 22an, GFAk zergapekoari egindako errekerimenduari buruzko erantzuna eman zuen.

8.– 2022ko abuztuaren 19an, ZAEAk GFAri inhibizioa eskatu zion, txosten hori egiteko erabili zuen informazioa biltzeko bere eskumenari zegokionez.

9.– 2022ko irailaren 15ean, GFAk eskumena berea zela berretsi zuen.

10.– 2022ko urriaren 14an, ZAEAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, zeina 75/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetu baitzen prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak du eskumena gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulu horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

> “Estatuko Administrazioaren eta Foru Aldundien artean edo Foru Aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai zerga itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari dagokion proportzioa zehazteari dagokionez, Sozietateen gaineko Zerga edo Balio Erantsiaren gaineko Zerga batera ordaindu behar den kasuetan”.

2.– Arbitraje Batzordearen jarrera.

Arbitraje Batzordeak, 25/2025 Ebazpenean (74/2022 gatazkari buruzkoa) eta 16/2024 (11/2020 gatazkari buruzkoa) Ebazpenean, argitu zuen jada eztabaida hori, eta, beraz, haren bigarren zuzenbideko oinarria errepikatzen da, honako hau dioena:

“Arbitraje Batzordeak dagoeneko zehaztu du administrazioak ikuskapen-eskumenik gabe egindako eragiketa-bolumenaren eta -proportzioaren egiaztapenaren norainokoari buruzko bere jarrera ebazpen hauetan: 27/2013 (21/2010 gatazkari buruzkoa), 19/2022 (15/2016 gatazkari buruzkoa) eta 81/2023 (20/2018 gatazkari buruzkoa), ondorio guztietarako errepikatutzat ematen ditugunak.

Bada, aipatutako ebazpenetatik eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziatik, zeina 2015eko maiatzaren 11ko Epaian (ECLI:ES:TS:2015:2092) —27/2013 Ebazpena berresten du— eta 2016ko maiatzaren 3ko Epaian (ECLI:ES:TS:2016:1959) adierazten baita, argi eta garbi ondorioztatzen da GFAk egindako jarduketaren baliogabetasuna, ZAEAren eskumena inbaditu zuelako, hala maila materialean nola lurralde-mailan neurriz kanpo jardunda.

Arbitraje Batzordeak 27/2013 Ebazpenean adierazi zuen ikuskapen-eskumenik ez zuen administrazioak jarduketak egin zitzakeela bere lurraldean, baina ezin zuela beste zerga-administrazio batzuetan aurkeztutako aitorpenen kopiarik eskatu.

2092/2015 Epaiak irizpide hori berresten du; izan ere, horren arabera, ikuskapen-eskumena duen administrazioak bakarrik egiazta dezake aitortutako eragiketen “bolumen osoa”, administrazio bakoitzaren zerga-proportzioa zehazte aldera. Are gehiago, argitzen du ezen, Aldundiak datuak hartu nahi bazituen (administrazioen arteko 2006ko maiatzaren 18ko Akordioetan xedatutakoaren arabera), ezin zuela beste zerga-administrazio batzuetan aurkeztutako aitorpenen kopiarik eskatu; bere lurraldean egindako eragiketen xehetasuna eska zezakeen gehienez.

Ildo beretik, 1959/2016 Epaiaren arabera, Aldundiak, ordainarazpen-eskumena duenean, bere lurraldean jarduketak egin ditzakeen arren, ezin du errekerimendurik egin bere lurraldean nahiz lurraldetik kanpo egindako eragiketa guztiak lortzeko, horrek berak ez dituen ikuskapen-eskumenak erabiltzea dakarrelako".

Aurreko ebazpenetan, Arbitraje Batzordeak jada administrazio jardulearen eskumeneko lurraldera mugatuta zuen egiaztapenaren norainokoa; beraz, ez da bidezkoa Kanarietan, Ceutan eta Melillan egindako jarduketei buruzko informazioa eskatzea.

Hori guztia egiaztapen-prozedura erabiltzearen desegokitasuna nabarmendu beharrik gabe; izan ere, 19/2022 Ebazpenean adierazi bezala (15/2016 gatazkari buruzkoa), zeina irmoa baita errekurritu ez zelako, prozedura horrek gainditu egiten ditu 1963ko Legean –ratione temporis aplikagarria– indarrean zegoen zerga-kudeaketarako prozedurak babesten zituen aukerak.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

1.– GFAk bere eskumenak gainditu dituela adieraztea, zergapekoaren 2018-2021 urteetako BEZari eta 2017-2020 ekitaldietako SZri dagokien eragiketa-bolumenari buruz egindako egiaztapena dela eta.

2.– Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta INGENIERÍA DE SANITIZACIÓN Y CONSERVACIÓN SA sozietateari jakinaraztea.

Izpta: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.